

NAFARROAKO KIROL FEDERAZIOEN HAUTESKUNDE PROZESUAK ARAUZEN DITUEN ERREGELAMENDUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuen eta erakunde nabarmenen iritzia jakiteko. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak)

Dokumentu honen helburua da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133.1 artikulua planteatzen dituen galderei erantzutea eta Nafarroako Kirol Federazioen hauteskunde-prozesuak arautzeko foru-agindu baten proiektua egin aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaille izan daitezkeenek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

A. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.-

Nafarroako Kirol Entitateak eta Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroa arautzen dituen apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuaren 45. artikulua xedatzen du federazioko presidentea eta Batzar Nagusiko kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesuen garapena Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Administrazioak arautuko duela erregelamendu bidez. Gaur egun, erregelamenduzko arau hori Gizarte Politiketako kontseilariaren ekainaren 24ko 359/2015 Foru Agindua da, Nafarroako Kirol Federazioen hauteskunde-prozesuak arautzen dituen, eta beharrezkoa da hura aldatzea eta beste foru agindu bat egitea, igarotako

denboragatik eta planteatutako premia berriengatik, batez ere administrazio elektronikoaren eremuan.

B. Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.-

Arlo horretan arau erregulatzailer berria izan behar da hurrengo hauteskunde-prozesuak hasi baino lehen. Prozesu horiek hurrengo joko olinpikoen urtean egingen dira: 2024an.

C. Arauaren helburuak.-

Egin beharreko foru agindu berriaren helburua da federazioen hauteskunde-prozesuak egiteko prozedurak zehaztea: hauteskunde-datak aukeratzea, hauteskunde-errolak prestatzea, hauteskunde-batzordeak izendatzea, federazioetako batzar nagusietarako hauteskundeak egitea, presidentea hautatzea, errekursoak eta epeak finkatzea, etab.

D. Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).-

Hauteskunde-prozesu horiek arautzeko, berriazko arau bat onartu behar da, prozesu horiek nola gauzatu behar diren zehazteko. Arau hori foru agindu bat da, Foru Komunitateko Kirol Administrazioari dagokion eskumena baita.

Iruñean, 2022ko otsailaren 23an.

KIROLAREN ZUZENDARIORDEA

Primitivo Sánchez Sanz